

Hitzaurrea

Eleriaren 7. ale honetan proposatzen dizuegun hausnarketaren iturri nagusia "Justizia eta Burujabetzari buruzko Nazioarteko Jardunaldiak" dira. Oñatiko Lege Soziologiako Nazioarteko Erakundeak antolatu zituen jardunaldiok, Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren babesarekin, eta 2000. urteko otsailaren 11 eta 12an egin ziren, Donostiako Miramar Jauregian.

Izenak aditzera ematen duenez, Justizia Administrazioa burujabetza edo autogobernuaren ikuspegitik aztertzea zen Jardunaldien antolatzaileen asmoa; izan ere, kontuan hartu bide dituzte Ivor JENNINGS irakaslearen hitzak: "arazo politiko asko konponduko lirateke, juristei haiek konpontzen utziko balizkiete". Juristek badakite Zuzenbidea arazoak konpontzeko bitarteko bat besterik ez dela. Eta botere-arazoak konpontzeko dago hain zuzen ere Zuzenbide Konstituzionala, bai historikoa, bai egungoa, eta baita konparatua ere. Arduradunen hitzetan, "funtzio jurisdikzionala herri-agintaritzari dagokion kontua da antolamendu politiko guztietan. Hala izan zen Antzinako Erregimenean, eta hala da oraingo Estatu konstituzionalean ere. Beraz, arrazoizkoa da herri-agintaritzaren esparru hori kontuan izatea autogobernua garatzeko orduan".

Jardunaldien aurkezpena Abel MUNIATEGI Justizia sailburuordeak egin zuen. Bere esanetan, gogoetaren zioa Justizia mailako eskumena titulu historikoz eskuratzetik ba ote dagoen aztertzea zen. Horretarako, hiru gogoeta-arlo nagusitan banatu zituzten saioak:

Lehenik, ikuspuntu historikoa. Ikuspuntu horretatik, Benjamín GONZÁLEZek aztertu zuen nola uler-tzen zen Justizia Gaztelan, Antzinako Erregimeneko monarkian eta egungo Estatu Konstituzionalean. Gregorio MONREALek, berriz, foruen garaian (1840ko abenduaren 16ra arte eta 1841eko urriaren 29ra arte) euskal lurraldeetan (Nafarroan izan ezik, honek berezko Justizia antolamendua baitzuen, Erreinu lez) zegoen Justizia Administrazioaz hitz egin zuen; eta foruen galera ostean, autonomia politikoa lortzeko aha-leginetan egin ziren eskakizunak ere aztertu zituen.

Bigarrenik, ikuspuntu teoriko eta soziologikoa. Espainian Justizia arloko eskumenak nolakoak diren azaltzea zen atal horren zioa, eta horretarako hiru ikuskera erabili ziren: kontzeptuala, konstituzionala eta soziologikoa. Michele TARUFFO irakasleak aztertu zuen Jurisdikzioa eta Justizia Administrazioaren arteko harremanak nolakoak izan daitezkeen Autonomiazko Estatu batean; ondoren, Jacques COMMAILLEk, ikuspegi soziologikotik, Justizia Administrazioaren modernizazioa eta demokratizazioa aldarrikatu zituen. Eta, bukatzeko, Rafael JIMÉNEZek, Estatu Justizia Administrazioa deszentralizatzeko aukerak aztertu zituen. Saioa bukatzeaz zegoela, Emilio OLABARRIAK, Botere Judizialaren Kontseilu Orokorreko bokalak, eskatu zuen hitza, eta bertan azaldu zuen zer nolako egitasmoa duen Kontseiluak Espainiako Justizia Administrazioaren eguneratze eta deszentralizazioari dagokionez.

Ondoren, eta azkenik, garrantzitsuak diren Estatu konposatu batzuetako Botere Judizialaren bilakera eta gaur egungo ereduaren azterketa egin zen. Hala nola, Suitzako kasua, Pascal MAHON irakaslearen eskutik; Alemaniakoa Hans-Ernst BÖTTCHERrek azaldua; Estatu Batuetakoa, Gerald ROSENBERGek, eta Kanadakoa, Andrée LAJOIE andreak. Horiez gain, aspaldidanik autonomia judiziala duen herrialde baten egoera ere aztertu zen, Eskoziarena, Neil MacCORMICK irakasle eta eurodiputatuaren eskutik. Bestalde, Europar Batasunean gaudela kontuan izanik, beharrezkoa zen, ikuspegia osatzeko, Komunitateko Justizia antolamenduaren eskuduntzak duen trataera aztertzea; hori egin zuen, hain zuzen ere, David EDWARD, Europar Komunitateetako Auzitegian epaile denak.

Itxieran Oñatiko Lege Soziologiako Erakundearen zuzendariak hitz egin zuen, Pierre GUIBENTIF jaunak, eta itxiera hitzaldia, berriz, Sabin INTXAURRAGA Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren sailburuak egin zuen, non nabarmendu zuen Jardunaldion haritik irekia geratzen zela etorkizuneko gogoeta, Espainiako Konstituzioak ahalitzen duen Justizia Administrazioaren deszentralizazio ereduaren gainean.

Ordea, Jardunaldiotatik kanpo geratu zen **Eleriaren** ikuspegitik garrantzi handikoa zen gai bat: hizkuntzarena, hain zuzen ere. Hizkuntza aniztuna den Estatu batean, nolakoa izan behar du Justizia Administrazioaren hizkuntza ereduak? Hain zuzen ere, gai horren inguruan epaile eta magistratuentzako Ikastaro bat antolatu berri zen Madrilen, 1999ko urriaren 18tik 20ra, Botere Judizialaren Kontseilu Orokorren eskutik, Iñaki AGIRREAZKUENAGAk zuzendua. Bertan jorratu ziren gaiak eta egindako ekarpenak jasotzeko, Ikastaroko azken hitzaldia zuzendariak berak egin zuen, "Hizkuntza aniztun Estatu bateko Justizia Administrazioari buruzko gogoetaren balantzea" izenarekin. Eta azken hitzaldi hori da, hain zuzen ere, geurera dakarguna. Horretaz gain, elkarrizketa moduan, hizkuntza eta justizia arloko zenbait auzi nagusiren inguruan iritzia eskatu diogu AGIRREAZKUENAGA irakasleari.

Bi Jardunaldion emaitzak eta ekarpenak eskaini nahi izan dizkizuegu, kronika moduan. Bide batez, hizlari gehienei elkarrizketa egin diegu beren ikergaiaren eta Justizia Administrazioaren arazoaren gainean.

Azkenik, laguntza eta baimena eman diguten guztiei eskerrak eman nahi genizkieke. Berezik, Abel MUNIATEGI jaunari, bere eskuzabaltasun eta harreragatik, Joxerramon BENGOTXEA jaunari, ideia honen sustatzaile izan zelako; Virginia TAMAYO andreari, berak erraztu zigulako elkarrizketak egiteko bidea; eta kronika egile guztiei, beren indarrak eskaini zizkigutelako jardunaldiok zuen eskuetara iritsi daitezuten. Aipatu beharra dago ere elkarrizketak hizlarien jatorrizko hizkuntzan egin zirela, eta Koro GARMENDIA andrea izan dela transkripzioez eta euskaratzeaz arduratu dena.

Itziar ALKORTA IDIAKEZ
Eleriako idazkaria